



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN JAIJA IKASTOLAN

ABENDUAREN 22AN GOIZEKO JARDUNA IZANGO DUGU 2 URTETIK AURRERAKO MAILA GUZTIETAN

Abenduaren 22an Olentzero eta Mari Domingi jai ospatuko dugu Ikastolan. Mari Domingi eta Olentzero bisitan etorriko zaizkigu Haur eta Lehen Hezkuntzara.

Bigarren Hezkuntzan berriz, egitarau berezia prestatu dute musika, ikuskitun, tailer eta abarrekin.

Egun horretarako euskal jantzi tradizionalekin etortzea proposatzen dizuegu (katuka gelan kamiseta zuria eta euskal zapia).

Oporren bezperako egunean goizeko jarduna izango dugu Haur Hezkuntzako 2 urte eta 2. zikloan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. **Escola ordutegia 09:00etatik 13:00etara** izango da guztientzat.

ABENDUAREN 22KO FUNTZIONAMENDUA

Laudio Txikiko 0 eta 1 urtetan ohiko ordutegia izango dute.

JANTOKI ZERBITZUA

Haur eta Lehen Hezkuntzan asteazkenetako funtzionamendua izango dute. Beraz, ikasleak jasotzeko ordutegia asteazkenetako berbera izango da ikastalde bakoitzarentzat.

Bigarren Hezkuntzako ikasleek ez dute jantoki zerbitzurik izango.



GARRAIO ORDUTEGIAK

Ikastolara goizean heltzeko eta arratsaldean abiatzeko orduak:

DBH eta BATXILERGOA:

09:00 - 13:00

LH

09:00 - 15:00

LAUDIOKO EKITALDIAK

ABENDUAREN 22an

18:00etan IKAZKINA Ugarteko plazan.

ABENDUAREN 23an

12:00etan OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN AGURRA San Joanen.

ABENDUAREN 24an

10:00etan NEGUKO AZOKA Eskualdeko baserritar eta artisauen neguko azoka burutuko da Aldai plazan. Berton Araba Eukaraz kanpainako materiala salgai egongo da.

11:00etan JOLASAK Kirikiñoren eskutik.

12:00etan EUSKAL DANTZA ERAKUSTALDIA Ikastolako dantza taldearen eskutik.

13:00etan SARI BANAKETA Olentzero eta Mari Domingiren marrazki lehiaketako sari banaketa egingo da.

17:30ean MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN BISITA adineko pertsonen egoitzan.

18:15ean MARI DOMINGI ETA OLENTZEROREN KALEJIRA adineko pertsonen egoitzan hasita.

Kalejiran Olentzero eta Mari Domingirekin parte hartzera animatzen direnek ostegunean, abenduaren 21ean, KRISEILUA edo SASKIA (gozokiak banatzeko) eskura dezakete arratsaldeko 16:15etik aurrera 4-5 urteko jantokian.

Laudio "Neguko Azoka"

Abenduak 24/10:00etan/Aldai plaza




Bertako "Baserritarrak eta Artisauak"

11:00etan. "Umeentzako jokoak" Kirikinok antolatuta

12:00etan. Euskal dantza taldea Laudio Ikastolako

13:00etan. Marrazki lehiaketaren sari banaketa



Antolatzaileak: Basalarrina eta Laudioko "Baserritarrak eta Artisauak"



Kontuan izan norberaren kriseilu edo saskiarekin ere parte hartzeko aukera dagoela.

Kalejiraren egunean 18:00etan geratuko gara Nagusien egoitza aurrean.

Ikastolan hartutako materiala urtarrilaren 9an entregatu beharko da 16:15etik aurrera 4-5 urteko jantokian.

Ikastolako familia guztiak kalejiran parte hartzera gonbidatuta zaudete. Zatozte euskal jantzi tradizionalak jantzita Olentzero eta Mari Domingi laguntzera.

ABENDUAREN 31n

10:00etan URTEARI AGURRA AZOKA Eskualdeko baserritar eta artisauen azoka burutuko da Aldai plazan.